

## MIDAS elkartearen I. mintegia

### Hizkuntza Gutxituen Europako Egunkarien Elkartea Euskal Herrian bildu da



Zaldi Ero

MIDAS-ek, Hizkuntza Gutxituen Europako Egunkarien Elkarteak, Euskal Herrian egin du I. Mintegia. Elkartea Portugalen egitekoa zen lehenbiziko mintegia baina *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxieraren lehenengo urteurrenarekin bat egin eta Euskal Herrian egin zuten mintegia otsailaren 16tik 20ra bitarte.

Atzerriko zortzi ordezkari izan ziren mintegiaren partaide: *Dolomiten* egunkariko Rainer Lechner, *Vasabladet*-eko Styg Nigard, *Primorski Dnevnik*-eko Daniel Radetic, *El Punt*-eko Maria Dolors Belles i Sabata, *Jakobstads Tidning*-eko Petter Granroth, *Új Szó*-ko Katarina Jukaszova, *Diari de Balears*-eko Joan Riera, eta Gunther Rautz, Europako egunkarien elkarteko lehendakaria.

Hainbat gairen inguruan hitz egin zuten bost egunetan: *Berria* egunkariko arduradunekin *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxieraz eta *Berria*-ren sorreraz jardun zuten, *Hitza* izeneko egunkari sortaren gainean, egunkariaren inpi-matzeaz eta banaketaz... *Berria*-ren sail bakoi-tza ezagutu zuten, Euskararen Gizarte Eragileen Kontseiluko eta Hizkuntz Eskubideen

Behatokiko ordezkariekin ere egin zuten bilera. Era berean, Goiena Komunikazio Zerbitzuak ere bisitatu zuten, hau da, Goitb, *Goienkaria*, Arrasate Irratia eta e-debagoiena. Ipar Euskal Herrian, berriz, Gure Irratiaren egoitzan eta Seaskako arduradunekin izan ziren...

Mintegiaren bigarren egunean Eusko Jaurlaritzan izan ziren, hilaren 17an. Kultura Sailean izan ziren. Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Goenagak eta Euskara Sustatzeko zuzendari Lorea Bilbaok hartu zituzten mintegiko partaideak, eta Euskal Herriaz eta euskararen egoeraren berri eman zieten. Jaurlaritzaren ordezkariak hizkuntza politikaren nondik norakoak azaldu zituzten, eta III. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak ere labur-labur aurkeztu, euskararen ezagutzaz eta erabileraz. Mintegiko kideek, berriz, beraien kezkarik nagusienak azaldu eta galderak egiteko aukera ere izan zuten. Honi

dagokionez, euskarak politika arloan eta administrazioan duen egoeraz jakin nahi izan zuten, hau da, agintariek euskaraz ba ote dakiten galdera egin zuten, epaileen jarreraz, ertzainen hizkuntz gaitasunaz, medikuen kompetentziatz... Ohi denez, euskararen etorkizunari buruzkoa izan zen azken galderetako bat.



Zaldi Ero

1

MIDAS-en I. mintegia Euskal Herrian

2

PERTSONAJEA: Jesus Atxa

LABURRAK

• Battita Ürrüti hil da

• Euskara Baionako erietxean

• Historialari Euskaldunen III. Topaketa

• Eremu urriko hizkuntzak

*Euskonews&Media*-n

AGENDA

• Expolingua Madril

3

• Maskaradak, Zuberoan

• Sariak banatzeko garaia

4

Euskararen erabilera lan-munduan



## MASKARADAK, ZUBEROAKO INAUTERIA

### Antzerki egitura du, kantuz, dantzaz, bertsoz eta lanbidez

Antzerki egitura duen inauteri berezia da Zuberoakoa:


*maskaradak*. Bi talde antagonikoren arteko borroka du oinarri: "gorriak" alde batetik, eta "beltzak", bestetik. Nabarmen bereizten dira bi taldeok ere, janzkera dotore eta kolore argikoa baitute gorriek; beltzek, aldiz, kolore iluna eta beltza dituzte nagusi. Dantzari iaioak dira gorriak eta, ostera, batere ordenurik gabe egiten dute bere lana beltzek.

Antzerki itxurako inauteri honetan bat egiten dute kantuek, dantzek, bertsoek eta lanbideek, egitura jakin baten arabera. "Jaun" eta "Anderea" dira maskaradaren zuzendari. Gorriek dantza egin eta gero, bere trebetasunak erakutsiko dituzte bateko eta besteko pertsonaje eta taldeek. Horien artean dira, adibidez: Txerrero, Gathuzain, Kantiniertsu, Zamalzain... Adibidez, mixela edo errementariak Zamalzain ferratuko dute, Txorrotzek Jaunaren ezpata zorrotzuko dute, buhamiek ipuin kontatzen jardungo dute... Maskaradaren bukaeran, dantza egingo dute denek batera.

Garai batean urtarrilaren lehenarekin batera hasten ziren maskaradak egiten herririk herri, eta astearte inauteri egunez amaitzen. Orduan, mozorrotu eta maskarada nagusia dantza egiten zuten zuberotarrek herriko plazan, goizeko 7etarik arratsaldeko 3rak arte.

Iuri eta Zalgizeko gazteak ari dira egiten aurtengo maskarada, honako egutegiaren arabera:

|                                   |              |
|-----------------------------------|--------------|
| Otsailaren 15ean, igandean .....  | Zalgize      |
| Otsailaren 29an, igandean .....   | Arrokiaga    |
| Martxoaren 7an, igandean .....    | Atharratze   |
| Martxoaren 14an, igandean .....   | Altzai       |
| Apirilaren 4an, igandean .....    | Ligi         |
| Maiatzaren 1ean, larunbatean..... | Gamue        |
| Maiatzaren 8an, larunbatean.....  | Idauze-Mendi |



## SARIAK BANATZEKO GARAIA

### Izen berri asko CAF-Elhuyar eta Argia sarien irabazleen artean

Hamaika sari banatu dira denbora gutxian. Joan den urtearen hondarrean Mediterraneo Saria jaso zuen *Gartxot* euskarazko komikiak 2003ko Ajaccioko Nazioarteko Komiki Azokan. Lanaren egile diren Asisko Urmeneta, Marko Armspach eta Jokin Larreak euskararen eta askatasunaren apologistatzat aurkeztu dute *Argia* aldizkariak kaleratu duen komiki hau.

Urtarrilaren 16an, berriz, X. edizioko CAF-Elhuyar sariak banatu zituzten. Dibulgazio-artikuluetan, Oihana Izaguirre eta Oihane Lakar biologoek aurkeztutako "Meandroetako mina" izeneko lanak jaso zuen lehen saria. Bigarren saria, "Replikantearen Jazz Arima" lanak irabazi zuen, Aitzol Ezeiza, Karmele Lopez de Ipiña eta Montxo Lopez de Ipiñarenak. Hirugarren saria, berriz, "Kafeina: behar bihur daitekeen plazera" artikuluak jaso zuen, Aitziber Mendi-guren, Luis F. Callado eta Joseba Pineda medikuen lanak, alegia.

Dibulgatzaile gazteentzako sari berezia Gorka Azkunek irabazi du, iaz bezala, "Izarren Energia" artikuluarengatik.

Dibulgazio-liburua idazteko beka, aldiz, Kepa Altonaga biologoak jaso zuen "Etxepare, Aldudeko medikua" proiektuarengatik.

*Argia* sariei dagokienez, berriz, urtarrilaren 23an banatu ziren, bost arlotan. Prentsa idatzian *Berria* egunkariko Nazioarteko Saila saritu zuten; irratien arloan, Aritz Agirre Euskadi Irratiko Madrilgo berriemaiak jaso zuen saria; telebistan, Iban Garatek, ETBko aurkezleak, jaso zuen; Internet alorrean, Susa argitaletxearen webguneak lortu zuen. Azkenik, *Berria* egunkariak bereganatu zuen merezimenduzko saria, *Euskaldunon Egunkaria* itxi ostean euskara hutsezko egunkari bat bizkortasun osoz abian jartzeagatik.



## Euskararen egoera lan-munduan

### Euskararen erabilerari buruzko bi azterketa burutu berri ditu HPSK

Lan-munduan euskarak duen egoerari buruzko bi azterketa burutu ditu berriki Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Horietan, euskararen erabilera zertan den aztertu da EAEko enpresa handietan batetik, eta saltoki, jatetxe eta tabernetan, bestetik.


#### Euskararen erabilera EAEko enpresa handietan

Azterketa hau egiteko 100 langiletik gorako enpresei telefono bidez egindako galdeketaren emaitzak hartu dira oinarri gisa; galdeketatik kanpo utzi dira Eusko Jaurlaritzako, foru aldundiak, udalak, Espainiako Gobernuako ordezkariak eta ospitale nahiz ikastetxe publikoak.

Jaasotako erantzun-tasa handia izan da: %70ek erantzun diote galdelegiari; horietatik enpresen erdiak Bizkaian, herenak Gipuzkoan eta zortzirena pasatxo Araban daude.

Enpresen kapitalaren jatorria, nora saltzen duten, zein alorretakoak diren, euskal hiztunen kopurua, euskararen erabilera-maila, eta horien gaineko hainbat zehaztapen aurki ditezke azterketan. Honetatik ondorioztatu daiteke euskara gutxi erabiltzen dela enpresa handietan, salbuespen jakin batzuk, salbuespen. Argi islatzen da gainera, enpresa kokatuta dagoeneko gune soziolinguistikoak eragiten diola gehien euskararen erabilera-mailari, ahozkoari batik bat.

Kanpo-komunikazioari dagokionez, jardun-alorra, merkatu geografikoa eta zerbitzuen hartzaileak erabakigarriak dira, idatzizkoan batez ere.



Euskara-planak enpresa handietan hedatu dira batez ere, eta eragin handia dute erabileran. Euskararen erabilera sustatzeko hartu beharreko neurriak dagokienez, bi jardun-ildo proposatzen ditu azterketak:

- 1.- Idatzizko komunikazioan eta bezeroarekiko ahozko harremanetan euskararen erabilera enpresa guztietan bultzatu daiteke.
- 2.- Enpresako euskal hiztunen portzentajeak gutxienezko neurri bat gaindituz gero, euskararen erabilera sustatu beharko litzateke bertan.

#### Euskararen erabilera EAEko saltoki, jatetxe eta tabernetan

Lagina 800 saltokik eta 500 jatetxek eta tabernak osatu dute. Saltoki, jatetxe eta tabernen lagin osoa kontuan hartuz aztertu dira emaitzak, batetik, eta talde bakoitza bereizirik, bestetik. EAEko saltoki, jatetxe eta tabernarik gehienak oso establezimendu txikiak dira, langile bat edo bikoak, eta oso gutxi erabiltzen dute euskara. Gainera, batez beste, %3ak baino ez du euskararen erabilera sustatzeko neurri edo araurerik.

EAEko saltokietan, jatetxeetan eta tabernetan euskararen ahozko erabilera oso txikia da. Ahozko komunikazioan euskara hain gutxi erabiltzearen arrazoi nagusia establezimenduen %62an, batez beste, euskal hiztunik ez egotea da.

Gehienetan, idatzizko komunikazioa gutxi erabiltzen da eta kasu askotan errotulaziora eta tiket zein fakturretara mugatzen da. Honegan ere, establezimenduak kokaturik dauden gune soziolinguistikoak erabakigarriak dira. Aurrekoek gain, ahozko eta idatzizko erabileraren tipologia eta euskararen erabilerari emandako garrantzia izan dira, besteak beste, aztergai. Erabilera sustatzeko egingarriagoak liratekeen ildoen gaineko hausnarketa ere badakar azterketak.

**Euskararen Berripapera** zure etxean doan jaso edo ezagutzen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

#### Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 01 81 16  
e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es



Euskara



Gaztelania

Izen-deiturak: .....

.....

Helbidea: .....

.....

Herria: .....

kodea: .....Lurraldea:.....

Tel.: .....

e-posta: .....